



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN HIRURTEKO PLAN NAGUSIA (2002-2005) ONARTZEN DUEN SAILBURUORDEAREN EBAZPENA

1.- SARRERA

2001/02ko ikasturtean EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketak aldaketa handiak izan ditu, EHAAan argitara eman eta jarraian aipatzen den legeriaren arabera:

- Abenduaren 11ko 342/2001 DEKRETUA, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa arautzen duena. (01-12-21eko EHAA)
- Abenduaren 11ko 343/2001 DEKRETUA, Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetan hizkuntz eskakizunak eta derrigortasunak esleitzeko araubide espezifikoa zehazten duena (01-12-21eko EHAA).
- Abenduaren 11ko 344/2001 DEKRETUA, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuen zerrenda onartzen duena (01-12-21eko EHAA).
- 2002ko ekainaren 18ko AGINDUA, Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa eta funtzionamendua zehazten dituen (02-07-02ko EHAA).

Araudi horietaz gain, ikuskariak lehen aipatutako 344/2001 Dekretuak zehaztutako LZko lanpostuetara esleitzeko era ere arautu nahi da, baita Hezkuntza Ikuskarien Kidegoan sartzeko lan-
eskaintza ere.

Horrek guztiak euskal hezkuntza-sistemaren, oro har, eta ikastetxeen eta Administrazioaren, bereziki, Ikuskaritzaren lehentasunezko bezeroak diren aldetik, beharrei eraginkortasunez erantzungo dien Ikuskaritza antolatzeko eredu bat ezartzea du helburu. Ikuskaritza antolatzeko eredu hori arinagoa izango da, koordinazio handiagoa izateko eta lan-taldeak errazago osatzeko. Era berean, ikuskariek

ardura handiagoa hartu ahal izango dute beren gain Ikuskaritza Planak osatzen dituzten prozesuak planifikatu, garatu eta ebaluatzeko unean.

Halaber, Hezkuntza Sail honen estrategiatik abiatuta, kalitate- eta etengabe hobetzeko prozesuetan ikuskarien prestakuntza bultzatu da ere azken bi ikasturteotan, eta lehentasuna ere emango zaio hurrengo urteei begira, ikastetxe publikoetan kalitatearen kudeaketa-sistemak ezartzeko plan bat garatzea baitu Hezkuntza Sailburuordetza honek helburu. Izan ere, Hezkuntza Ikuskaritzak ebaluatuko du plan hori.

2002-2005eko aldirako aurreikusten den Plan Nagusi honek Ikuskaritzaren jarduera-ildo nagusiak zehazten ditu. Izan ere, egin beharreko jarduerak edo azpiprozesuak konkretatuko dituzten Urteroko Planak eginez garatuko dira jarduera-ildo nagusi horiek urtero.

2.- HELBURU OROKORRAK

Plan Nagusi honek ondorengo helburu orokorrak lortu nahi ditu:

- Hezkuntza-sistema hobetzen laguntzea, araudia betetzen den kontrolatuz, zuzendaritza-taldeei eta irakasleei aholkularitza emanez eta hezkuntza-sistema horren ebaluazioan parte hartuz, ikastetxeei, zuzendaritza-funtzioari eta irakasle-lanari begira batez ere.
- Ikasleek kalitatezko hezkuntza jasotzeko duten oinarrizko eskubidea bermatzea.
- Hezkuntza Saileko zerbitzu desberdinetako eta hezkuntza-sistemarekin harremana duten beste erakunde batzuetako arduradunekin lankidetzan aritzea.
- Euskarazko hizkuntz gaitasuna eta etengabeko prestakuntzaren bidez ikuskarien gaitasun profesionala handitzea.
- Kalitatea kudeatzeko sistemen tresnak sartu eta Ikuskaritzaren funtzionamendura egokitzea.

3.- IKUSKARITZA PROZESUAK. 2002-2005eko ALDIA.

Azken ikasturteotako prestakuntza-planek kalitate-sistemak kudeatzeko teknikak, tresnak eta orientabideak egokitu eta Ikuskaritzan sartzeari eman diote lehentasuna.

Horrekin lotuta, eta 2002ko ekainaren 18ko Aginduak, Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa eta funtzionamendua zehazten dituenak, 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, Kalitate Batzorde bat osatuko da Ikuskaritzan. Batzorde hori Ikuskari Nagusiaren menpe egongo da, Lurralde bakoitzeko ikuskariek osatuko dute, ikuskari nagusi baten koordinaziopean, eta ikuskaritza-prozesuetan kalitatea kudeatzeko sistema bat ezartzea izango du helburu, ikuskarien jardura eredutu eta hobetzeko asmoz.

Era berean, aipatutako aginduaren 12. artikuluan adierazten denez, Ikuskaritzak, ebaluazio-, kontrol-, aholkularitza- eta lankidetzeta-funtzioetan, egindako jardura desberdinak Jardura Plan Nagusian zehaztutako prozesuetan egituratuko dira.

Horregatik, Ikuskaritzako prozesuen antolaketak makroprozesuen, prozesu giltzarrien eta azpi-prozesuen egitura hartzen du.

- **Makroprozesuek** kalitatea kudeatzeko sistema deskribatzen dute eta, 9001:2000 ISO Arauari egokitzen hasteko asmoz, beren kapitulu desberdinen arabera zehazten dira.
- **Prozesu giltzarriek** eratzen dute Hezkuntza Ikuskaritzako prozesuaren kudeaketa (Ikuskaritzako bezeroei zerbitzuak ematearekin lotutako jardura guztiak). Prozesu giltzarriak Hezkuntzako jardura desberdinen (azpi-prozesuak) multzo gisa definitzen dira, irizpide funtzionalen, eskaeraren, bezeroen tipologiaren, etab.en arabera.
- **Azpi-prozesuak** Ikuskaritzako jardura desberdinen konkretzioa dira.

Makroprozesuak Ikuskaritzaren kalitatea kudeatzeko sistemarekin batera definituko dira. Hala ere, orientabide gisa, egin daitezkeen haien banaketa bat adierazten da:

- **MP01.- Ikuskaritzaren zerbitzuak.**
- **MP02.- Hezkuntza Ikuskaritzako prozesuaren kudeaketa.**
- **MP03.- Prozesuen azterketa, kontrola eta hobekuntza.**
- **MP04.- Kalitatea kudeatzeko sistemaren agirien bidezko gestioa.**
- **MP05.- Estrategia, urteko plana eta ardurak.**
- **MP06.- Pertsonen kudeaketa eta prestakuntza.**
- **MP07.- Baliabideen kudeaketa.**
- **MP08.- Sistemaren auditoriak.**

Makroprozesu horietatik, **MP02-k- Hezkuntza Ikuskaritzako prozesuaren kudeaketak**-prozesu giltzarriak sartzen ditu. Izan ere, prozesu giltzarri horiek, jarraian aipatzen diren beren azpiprozesuekin batera, Hirurteroko Plan Nagusi honen ardatza osatzen dute.

MP02ko PROZESU GILTZARRIAK

- **PR01.- Ikastetxeen ebaluazioa eta auditoria.**
- **PR02.- Irakasleen ebaluazioa.**
- **PR03.- Hezkuntza Sailak onartutako programa eta proiektuen jarraipen, kontrol eta ebaluazioa.**
- **PR04.- Arau kontrola.**
- **PR05.- Ikasleen emaitzak aztertu eta baloratzea.**
- **PR06.- Ikastetxeei eman beharreko aholkularitza.**
- **PR07.- Administrazioarekiko lankidetzan egin beharreko jarduerak.**

PROZESU GILTZARRI HORIEN AZPIPROZESUAK

Jarraian zehazten dira 2002-2005eko hiru urtekorako aurreikusten diren jarduera edo azpiprozesuak, egin behar diren eta urteko planetan sartuko diren beste jarduera batzuen kalterik gabe.

PR01. Ikastetxeen ebaluazioa eta auditoria.

- LHko ikastegi integralen sarea osatzen duten Lanbide Heziketako ikastetxeen ebaluazioa.
- Hezkuntza Sailburuordetzak zehaztutako ikastetxe publikoetan ezartzen den kalitatea kudeatzeko sistemaren ebaluazioa.
- Ikastetxeen kudeaketa eta antolaketaren GUNEKA ereduaren ebaluazioa.
- Kualifikazio-sistemari lotutako prestakuntzaren auditoria.
- Ikastetxeetako emaitzak aztertu eta baloratzea..

PR02. Irakasleen ebaluazioa.

- Irakasle- eta zuzendari-funtzioen ebaluazioa:
 - Zuzendaritzan aritzeko kreditazioa.
 - Irakaskuntzako funtzio publikoaren balorazioa.
 - Zuzendari-funtzioaren balorazioa.

- Zuzendariek, teknikari espezialistek, koordinatzaileek, programen arduradunek eta Berritzeguneetako, IHHIetako eta Ebaluaziorako Euskal Institutuko aholkulariek ebaluazioan duten parte-hartzea.

PR03. Hezkuntza Sailak onartutako programen eta proiektuen jarraipen, kontrol eta ebaluazioa.

- Irakasleentzako prestakuntza-programen ebaluazioa.
- IKTak ikastetxeetan nola erabiltzen diren ebaluatzea.
- Hezkuntza Berriztapenerako proiektuak:
 - Eskatutako proiektuen balorazioa.
 - Onartutako proiektuen garapenaren eta aplikazioaren balorazioa.
- Ikerketa- eta esperimentazio-proiektuak:
 - Eskatutako proiektuen balorazioa.
 - Onartutako proiektuen garapenaren eta aplikazioaren balorazioa.
- Ikastetxeetako prestakuntza-proiektuen jarraipen eta kontrola.
- Hizkuntz Normalkuntzarako programen jarraipen eta kontrola.
- Curriculum desberdinak eratzeko programak:
 - DBHn curriculum desberdinak eratzeko eskaerak baloratzea.
 - Behin-behingo onartutako curriculum desberdinetako taldeen kontrola.
 - Curriculum desberdinak eratzeko programa nola aplikatzen den jarraitu eta kontrolatzea.
- Hezkuntza Parte-Hartze Espezifikoko programak:
 - DBHn Hezkuntza Parte-Hartze Espezifikoko programak izateko egin diren eskaeren balorazioa.
 - Onartutako programak nola aplikatzen diren jarraitu eta kontrolatzea.
- Eskolatzeko programa osagarriak:
 - DBHn eskolatzeko programa osagarriak izateko egin diren eskaerak baloratzea.
 - Onartutako programak nola aplikatzen diren jarraitu eta kontrolatzea.
- Programa europarren jarraipen eta kontrola.
- Lanbide Hastapeneko programen jarraipen eta kontrola.
- Etorkinak eta gizarte-maila ahuleko ikasleak nola eskolatzeko jarraitu eta kontrolatzea.

- Haur-eskolak:
 - Udal haur-eskolen proiektuen balorazioa.
 - Onartutako proiektuen jarraipena.
 - Haur Hezkuntzako 1. zikloaren jarraipen eta kontrola.

PR04. Arau kontrola.

- **Ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua:**
 - EEDren arau kontrola.
 - Ikastetxeetako talde eta ikasle kopuruaren kontrola. Egoerari buruzko txostena.
 - Ikastetxeetako ikasketa- eta administrazio-agirien kontrola eta azterketa.
 - Irakasleen hutsegiteen kontrola.
 - Lagun bakarreko eta kide anitzeko organoak aukeratzeko prozesuaren jarraipen eta kontrola.
 - Ikastetxeetako eskola-egutegien jarraipen eta kontrola.
 - Ikasturtearen hasierako gorabeheren jarraipena.
 - Itundutako gelen kontrola.
 - Ikastetxeen hezkuntza-proiektuak kontrolatzea.
 - AIA eta BAen legalitatea kontrolatzea.
 - Eskolaketa-liburuak eskatu, erregistratu eta banatzea.
- **Curriculum:**
 - Curriculum helduen hezkuntzan benetan ezartzen den jarraitu eta kontrolatzea.
 - Curriculum UOHEIn benetan ezartzen den jarraitu eta kontrolatzea.
 - ICP maila guztietan legeriari lotzen zaizkion kontrolatzea.
 - Programazio didaktikoen ikuskapena.
 - Curriculum-egokitzapen esanguratsuen jarraipen eta kontrola.
 - Helduen Hezkuntzako ikastegi publiko espezifikoetako arautu gabeko prestakuntza-programen kontrola.
- **Irakasle eta ikasleak:**
 - Irakasleen eskubide eta betebeharrak buruzko araudia betetzen den kontrolatzea.
 - Irakasleen zigor-espedienteen kontrola.

- Ikasleen ebaluazioari, promozioari, onarpenari,... begira legeria betetzen den kontrolatzea.
- Maila guztietan ematen diren euskara-salbuespenen kontrola.
- DBHko Graduatuen proposamenak kontrolatzea.
- Irakasleen titulazioen kontrola.

PR05. Ikasleen emaitzen azterketa eta balorazioa.

- Derrigorrezko Hezkuntzako- Lehen Hezkuntzako eta DBHko- ikasleen emaitzen tratamendu informatikoa, azterketa eta balorazioa.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko-Batxilergoko eta Heziketa-Zikloetako ikasleen emaitzen tratamendu informatikoa, azterketa eta balorazioa.
- Bigarren Hezkuntzako Graduatuen titulua lortzeko proba libreetan izandako emaitzen azterketa eta balorazioa.
- Heziketa-Zikloetara sartzeko probetan izandako emaitzen azterketa eta balorazioa.
- Unibertsitaterako sarbide-probetan lortutako emaitzen azterketa eta balorazioa.

PR06. Ikastetxeei eman beharreko aholkularitza

- OOGko edo Eskola Kontseiluko elkarbizitza batzordearen aholkularitza.
- Arreta ematea ikasleak ebaluatzeko prozedurak alde pedagogiko eta administratiboetan ondo egiteari buruzko erreklamazioei.
- Zigorrrak behar bezala tramitatzeari buruzko aholkularitza.
- Eskolaketa-liburuak, ebaluazio-aktak eta ikasketa-espeditentak betetze eta zaintzeari buruzko aholkularitza.
- Curriculum-proiektua, urteko plana eta ikastetxearen memoria egiteari buruzko aholkularitza.
- Kudeaketa-gaiei buruz zuzendaritza-taldeei eman beharreko aholkularitza.
- Europako hezkuntza-programetan parte har dezaten ikastetxeei aholkularitza ematea.

PR07. Administrazioarekiko lankidetzeta-jarduerak.

- Hezkuntza Saileko arduradunek -Sailburuak, Sailburuordeek, Zuzendariak eta Lurralde Ordezkariek- eskatutako txostenak.
- Euskadiko Eskola Kontseiluak eskatutako txostenak.
- Arartekoak eskatutako txostenak.

- Eusko Legebiltzarrak eskatutako txostenak.
- Estatuko Goi Mailako Ikuskaritzak eskatutako txostenak.
- Argitalpen-proiektuak euskaraz eta gaztelaniaz baimentzeko txostenak.
- Ikastetxe publikoetako irakasleei espedienteak tramitatzea.
- Ondorengo jardueretarako osatutako batzordeetan parte hartzea: zuzendaritza-karguetan aritzeko kreditazioa, titulazioak, zerbizu-eginkizunak, lehiaketa eta beste deialdi batzuetarako irakasleen merituen baremazioa, berriztapen-proiektuak, Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortzeko proba libreak, etab.
- Atzerritar eta gizarte-maila ahuleko ikasleak eskolarazteko dauden Batzordeetan parte hartzea.
- Ondorengo epaimahaietan parte hartzea: Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortzeko proba libreak, heziketa-zikloetan sartzeko, unibertsitaterako sarbide-probak, Batxilergoko aparteko sariak, etab.
- Oposizio-epaimahaietan parte hartzea.
- Ikastetxe publikoen plangintzan parte hartzea: ikasle-taldeak, plantilak, LZ, etab.
- Saileko ebazpenak eta zirkularrak egitean parte hartzea.
- Unibertsitaterako sarbide-probak koordinatu eta egiteko EHUrekiko lankidetzak.
- Ikastetxe publikoetan lagun bakarreko organoak proposatzea.
- Udal eta beste erakunde batzuekiko lankidetzak: Emakunde, Adin Txikikoen Fiskaltza, Sarean, Kalitatearen Agentzia, Foru Aldundiak, etab.
- Ebaluaziorako Euskal Instituirekiko lankidetzak, hezkuntza-sistemaren ebaluazioan:
 - Ebaluazio-adierazleen euskal sistema bat ezartzea.
 - Hezkuntzek hezkuntza-sisteman duten egoeraren ebaluazio kualitatiboa.
 - Beste lankidetzak batzuk.

4.- HIRURTEKO PLANAREN EBALUAZIOA

- Ikuskaritzaren lana hobeto egiteko, Lurralde Burutza bakoitzak, Zonalde Burutzeekin elkarlanean, txosten bat egingo du ikasturte bakoitzaren bukaeran, Lurralde mailako urteroko jarduera-planetan aurreikusitako helburuak eta funtsezko prozesuak nola bete diren autoebaluatzeko.

- Halaber, Ikuskaritza Nagusiak Urteroko Azken Memoria egingo du. Memoria horrek lurralde bakoitzaren autoebaluazioak eta Ikuskaritza Nagusiak egindakoa jasoko ditu. Izan ere, azken honek Hezkuntza Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio globala, Plan Nagusia betez, eta datorren ikasturteari begirako hobekuntza-proposamenak adieraziko ditu.

5.- IKUSKARITZAREKIN LOTUTAKO HELBURUAK.

5.1. AURREIKUSITAKO ALDAKETAK

- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetara adskribatzeko Dekretua argitara ematea.
- Hezkuntza Ikuskaritza antolatu eta funtzionatzeko behar adina ebazpen argitara ematea.

5.2. PRESTAKUNTZA

Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntzak ondorengo alderdiei emango die lehentasuna:

- Kalitate- eta etengabeko hobekuntzarako programei buruzko prestakuntza.
- Ikuskaritzaren lanarekin lotutako alderdi juridiko eta administratiboetan sakontzea.
- Informatikako ikastaroetan parte hartzea.
- Biltzarretara, mintegietara,...etab.etara joatea, komunikazio eta txostenak aurkezten dituztenak batez ere.
- Garatu Planeko ikastaroetan parte hartzea.
- Egokitzen jotzen diren beste ikastaro batzuk.

Ikuskariek bi eratan har dezakete prestakuntza-jardueretan parte:

- **Erakunde-prestakuntza**. Ikuskaritza Nagusitik sustatzen da, Ikuskari Nagusiaren baimenarekin eta honek jartzen dituen mugekin. Oro har, kolektibo guztian edo horren zati batean izango du eragina (ostiraletako bilkurak, etab...), zenbait kasutan ikuskariren bati prestakuntza Ikuskaritzaren intereserako jasotzera joan dadila eskatu ahal zaion arren.

Kasu guztietan, parte-hartzaileei erabat ordainduko zaizkie sortzen zaizkien gastuak, zerbitzuaren kalte-ordainak direla-eta indarreko legeriaren edo kasu batzuetarako zehazten diren legeria espezifikoen arabera

- **Prestakuntza pertsonala.** Ikuskariei baimena eman ahal izango zaie biltzar, ikastaro, mintegi, sinposium, topaketa, lehiaketa, hitzaldi, bilera, jardunaldi eta izaera zientifiko, tekniko, profesional, elkargo-mota, elkartze-mota edo sindikaleko gainontzeko gertakari kolektiboetara joateko, zerbitzuaren beharren arabera eta Ikuskaritzako Lurraldeburuak, Zonaldeburuaren oniritziarekin, alde zuzenetik baimena eman ondoren.

Ondorengo muga orokorrak jarriko dira prestakuntza-jardueretan parte hartzeko:

- Araba: 2 ikuskari
- Bizkaia: 9 “ (3 Bilbotik eta 2 gainontzeko zonalde bakoitzetik).
- Gipuzkoa: 5 “ (1 Eibartik eta 2 gainontzeko zonalde bakoitzetik).

Zonalderen batek dagokion lanpostua betetzen ez duenean, lurraldeko beste ikuskari batek bete ahal izango du lanpostu huts hori.

Baimen hori ordainduko da, bost eguneko mugarekin ikasturte bakoitzerako. Muga hori gainditzen denean, ez da ordainduko. Ez du inolako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik emango, ezta dietak, bidai-gastuak, egonaldia edo izena ematea ere, interesatuaren kontura izango dira eta. Geroago, irakasleentzako deialdi arruntetan gastu horiek ordaintzeko eskatu ahal izango du (banakako dirulaguntzen deialdia).

Kasu guztietan, egindako jarduera azaltzen duen banakako memoria aurkeztu beharko zaie Lurralde Burutzei, baimena ordainsaria jasotzeko eskubiderik gabe eskatu denean izan ezik.

5.3. EUSKALDUNTZEA ETA EUSKARAREN NORMALKUNTZA

B eta D ereduak hiru lurraldeetako ikastetxeetan gorantz doazela eta euskara komunikaziorako tresna gisa ikastetxeetan gero eta gehiago erabiltzen dela kontuan hartuta, ondorengo helburuak planteatzen dira datozen hiru ikasturteetarako:

- Inolako hizkuntz eskakizunik ez duten ikuskariek ahozko eta idatzizko euskara hobeto ulertzea.
- Ikuskarrien Kidegoko gero eta ikuskari gehiagok HE2 egiaztatzea.
- Euskararen erabilpena sakondu eta hobetzea, idatzizkoa batez ere, HE2 egiaztatu arren zailtasunak dituztenentzat batez ere.
- Euskara gero eta gehiago erabiltzea, nahiz barne komunikazio eta txostenetan, nahiz, batez ere, ikastetxeekiko harremanetan.

Helburu horiek lortzeko, IRALE programaren aukera guztiak erabiliko dira. Gainera, beste jarduera batzuk ere aztertuko dira, Hezkuntza Berriztapenerako Zuzendaritzako Euskara Zerbitzuarekin batera.

6.- IKUSKARITZA ZERBITZUAREN ANTOLAKETA

6.1. ANTOLAKETA

Ikuskaritzarako Plan Nagusi hau, urteroko planetan gauzatzen dena, Lurralde Burutzek zuzendutako lurralde mailako jarduera-planekin batera garatu eta osatuko da. Izan ere, Lurralde mailako jarduera-plan horiek Zonalde Burutzek egindako ekarpen espezifikoak sartuko dituzte. Lurralde mailako jarduera-plan horiek ondorengo atalak konkretatuko dituzte:

- Lurraldean edo zonalde bakoitzean eragina duten Plan Nagusiaren azpiprozesuak edo jarduerak.
- Plan Nagusian agertzen ez diren eta Ordezkaritzen edota ikastetxeen eskaera espezifikoiei erantzuna ematen dieten azpiprozesuak.
- Ikuskari bakoitzaren erreferentziako ikastetxeak.
- Aurreikusitako antolaketa: zaintza-egunak, lan desberdinen arduradunak, etab.

Ikuskaritzako partaideek erreferentziako ikastetxeetan parte hartzeak hobekuntza konkretuak ekarri behar ditu ikastetxe horietan aurrera eramaten diren prozesu desberdinetan. Horretarako, ondorengo atalak beharrezkoak dira:

- Ikastetxe bakoitzaren egoera sakon ezagutzea, eskola-elkarteko estamentu guztiekin bisitak eta bilerak eginez (gobernu-organoak, irakasle-taldeak,...) eta ikastetxearen funtsezko agiriak aztertuz.
- Ikastetxearen jarduerak ebaluatzea, antolaketari eta funtzionamenduari begira eraginkorragoa izateko asmoz.
- Ikastetxe bakoitzeko barne ebaluazioari aholkularitza eman eta bultzatzea, hezkuntza-jarduera hobetzeko funtsezko elementuetako bat den aldetik.
- Egindako kontrol eta ebaluazioari buruz ikastetxearen estamentu desberdinei informazioa ematea.
- Ikastetxeen funtzionamendu arruntean eragina izan dezaketen gorabehereri eta emaitzei buruz Hezkuntza Saileko erakunde desberdinei informazioa ematea.
- Ikasturtearen bukaeran, esleitu zaizkion ikastetxeetako bakoitzari buruzko txostena ematea.

Ikuskariak bere erreferentziako ikastetxeetan eragin handiagoa izatea bermatzeko asmoz, ikuskariak gutxienez hiru aldiz bisitatu beharko du esleitu zaizkion ikastetxeetako bakoitza (2002ko ekainaren 18ko Aginduak, Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa eta funtzionamendua zehazten dituenak, 13. artikuluan xedatutakoaren arabera).

Zentzu horretan, ikasturtearen hasieran eta bukaeran bisitatuko da ikastetxe bakoitza, ikuskariak bertako arazoak ezagutu eta ikastetxearen jarduera hobetzeko proposamenak egin ahal izateko. Bisita horiek Ikuskaritza osorako planifikatu, prozeduraz antolatu eta koordinatuko dira.

Lurralde Burutzak oniritzia eman beharko du, beste zonalde batzuetara joatea eskatzen duten jarduerak egin behar direnean.

Gaixorik egoteagatik edo beste arrazoiengatik Zonaldeburu bat falta denean, bere funtzioak egingo dituenak Hezkuntzako Ikuskaritzaren antolaketa eta funtzionamendua zehazten dituen 2002ko ekainaren 18ko Aginduaren 4. Xedapen Gehigarrian eta Ikuskaritzako Zonaldeburuak aukeratzeko Langileriaren Kudeaketarako Zuzendariaren 2002ko uztailaren 11ko Ebazpenaren hirugarren idazatian dauden baldintzak eduki beharko ditu.

6.2. ERREFERENTZIAKO IKASTETXEA ESLEITZEA

2002ko ekainaren 18ko Aginduak, Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa eta funtzionamendua zehazten dituenak, 3. artikuluan xedatzen duena eta Ikuskari Nagusiak 2002ko irailaren 2an emandako argibideak hartuko dira kontuan.

Ondorengo irizpideak erabiliko dira ikastetxeak esleitzeko:

1. Ikastetxe bakoitzak erreferentziako ikuskari bat izango du, ikastetxeak ematen dituen etapa eta mailak kontuan hartu gabe. Hala ere, jarduera berezi batzuetan, erreferentziakoa ez den beste ikuskari bat ere joan daiteke ikastetxe horietara, ikuskari nagusiak edo lurralde buruak hala erabakitzen badute.
2. Lanbide Heziketako Euskal Planeko prestakuntzarako modulu-katalogoa ematen duten ikastetxe publiko eta pribatuak ikuskari bat izango dute Eibarko eta Getxoko Zonaldeetan eta, gehienez jota, bi ikuskari gainerako Zonaldeetan. Horiek Aginduaren 3. artikulua ezartzen dituen baldintzak bete beharko dituzte. Ikastetxe horien eta Zonaldeko ikastetxe guztien kopuruaren arabera, ikuskari horiek Zonalde bereko beste ikastetxe batzuk ere eduki ditzakete; batez ere, Heziketa Ziklo asko dituztenak.
3. Oreka bat izan behar da ikastetxeei begira zonalde bakoitzeko ikuskariek egin behar duten lanean. Hori lortzeko, honako aldagai hauek hartuko dituzte kontuan Lurralde Burutzek:
 - Ikuskari bakoitzak zenbat ikastetxe publiko eta itunpeko dituen.
 - Ikastetxe bakoitzeko irakasle/ikastetxe ratioa.
 - Ikuskaritza egoitzatik ikastetxeetara dagoen urruntasuna.
 - Gizarte maila ahuleko ikasle kopuru handia izateagatik bereziki problematikoak diren ikastetxeak.
 - Hezkuntza arautu eta ez arautua edo Batxilergoa eta Heziketa Zikloak arratsaldez ematen dituzten ikastetxeak.

4. Lurralde Burutzek, ikastetxeak ikuskari bakoitzari esleitu aurretik, lehenago adierazitako aldagaiez gain, esleitutako ikastetxe kopuruari begira ondorengo ikuskariak murrizketa bat izango dutela hartu beharko dute kontuan:

- Zonalde buruak eta Arabako Lurralde Burutzako ondokoa.
- Aginduan ezarrita dagoen Kalitate Batzordean parte hartzeko Ikuskaritza Nagusiak proposatutako ikuskariak.
- Bi orduko liberazioa edukita Irale programan euskara ikastaroetara joaten diren ikuskariak.
- Ikuskaritzak erabili behar dituen programa informatiko bereziak prestatzeko dagoen arduraduna.
- EIMA programarekin laguntzeko Hezkuntza Sailburuordetzak proposatzen dituen bi ikuskariak (bat Bizkaian eta beste bat Gipuzkoan).
- Hezkuntza Sailburuordeak proposatuta Ikastetxe Publikoetako Zuzendari Taldeen formazioaz arduratuko den Bizkaiko ikuskaria (2002-03 ikasturtean).

5. Ikuskariei esleitu beharreko ikastetxeen tipologiari dagokionez, ondorengo irizpideak erabiliko dira:

- D eredia nagusi den ikastetxeak 2.HEa edo baliokidea duten ikuskariei emango dizkiete.
- Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan irakasle edo ikuskari moduan esperientzia izan ez dutenei Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak emango dizkiete; baina litekeena da Lehen eta Bigarren Hezkuntza ematen duten itunpeko ikastetxeak edo ikastetxe pribatu integralak ematea.
- Batxilergoan eta Heziketa Zikloetan irakasle edo ikuskari moduan esperientzia izan ez dutenei Haur Hezkuntzako (Hezkuntza Sailak baimentzen dituen edo baimentzeko bidean diren 0-3 urtekoen ikastetxeak barne), Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako (DBHko ikastetxe independenteak bakarrik) ikastetxeak emango dizkiete; baina litekeena da Lehen eta Bigarren Hezkuntza ematen duten itunpeko ikastetxeak edo ikastetxe pribatu integralak ematea.
- Zonaldeko Hizkuntza Eskolak filologia espezialitateren bat duten ikuskariei emango dizkiete lehentasunez.

- Gainerako ikastetxeak (Helduen Hezkuntzakoak, musika ikastetxeak, LHIKak, etab.) edozein ikuskarirentzat izan daitezke, Zonaldeko beharren arabera. Hala ere, kontuan izan behar da Zonaldean musika espezialistarik dagoen ala ez; baita Zonaldeko ikuskariak helduen hezkuntzari buruz izan duten ezagutza ere.
 - Zonaldeko burutzei emango dizkiete Barritzeguneak edo, Arabako kasuan, Ikuskaritzako Lurralde Burutzako ondokoari.
 - Salbuespenezko kasuetan eta justifikatuta dagoenean, Ikuskaritzako Lurralde Burutzak ikastetxeak eman ahal izango ditu, lehen aipatutako kasuren bat kontuan hartu gabe, baldin eta lehentasunezko helburua Zonaldean dagoen plantilarekin ikastetxeei ahalik eta zerbitzurik onena emateko lehentasunezko helburuarekin.
6. Lehen aipatu ditugun ikastetxeak esleitzeko irizpideak errespetatuz, udalerrri txikietako ikastetxeak ikuskari bakar bati esleitzen saiatuko dira.
7. Ikuskariren batek gaixotasunagatik edo beste arrazoiren batengatik huts egiten badu, Zonalde bereko beste ikuskari bat edo batzuk arduratuko dira haren erreferentzi ikastetxeek, tokian tokiko Zonaldeko Burutzak egindako proposamenaren arabera.

6.3. ZAINTZAK ETA KOORDINAZIO-BILERAK.

Zonalde bakoitzaren egoitzan egunero egon beharko dute Ikuskari batzuk, ikastetxeei eta publikoari derrigorrezko arreta emateko. Horretarako, ikuskari bakoitzak zaintza-egun bat izango du astero, eta erreferentziako ikastetxeei jakinarazi beharko zaie.

Ikuskaritza-taldeak koordinatuko direla eta prestakuntza jasoko dutela bermatzeko asmoz, astean beste egun bat zehaztuko da, ostirala zehatzago, Ikuskaritzako partaide guztiak beren egoitzan egon edo deitzen diren prestakuntza-saioetara joan daitezten.

6.4. JARDUEREN ASTEKO PARTEA ETA HIRUHILEKO LABURPENA.

Ikuskari-funtzioaren ezaugarriak eta bere jardueren berezitasunak kontuan hartuta, lana malgutasunez antolatu ahal da, ikuskari bakoitzak bere lanaldia berak antolatzeko moduan.

Zentzu horretan, Hezkuntza ikuskariek, urteko planeko jarduera desberdinak aurrera eraman ahal izateko, nahiko autonomia dute, oro har, haien lanen zerrenda antolatzeke, kasu bakoitzean zehaztutako epeak derrigorrean bete behar badituzte ere.

Esperientziak erakusten duenez, sarritan gertatzen dira ikastetxeetan aurreikusi ez diren egoera problematikoak edo goragoko nagusiek informazioa edo datuak premiaz eskatzea, eta egoera horiek ikastetxe bateko erreferentziako ikuskaria berehala aurkitzea eskatzen dute. Egoera horiei era eraginkorrean erantzuteko eta, gainera, zonaldeburuek beren zonaldeko ikuskariak non dauden eta zertan ari diren jakin dezaten, ikuskari guztiek behar bezala eta zehaztasunez bete behar dute asteko jardueren agiria.

Bestalde, asteko jardueren agiriaren jarduerak biltzeak erraztasunak ematen ditu jardueren estatistikak betetzeko. Izan ere, estatistika horiei esker egindako lanaren azterketa global koantitatibo eta kualitatiboa eduki ahal da.

Horretarako, Hezkuntza Ikuskaritzako asteko jarduerak planifikatu, aztertu eta kontrolatzeko asmoz eta, halaber, Hezkuntza Ikuskaritzak ikasturtean egindako jardueren laburpena egiteko asmoz, ikuskari bakoitzak eguneko jardueren parte bat bete beharko du astero, aurreikusitako bisitak eta bilerak sartuko dituena. Banakako jardueren parte hori Zonalde Burutzen eta Lurralde Burutzaren eskura egongo da. Hiruhilero egingo da egindako jardueren laburpen bat, Zonalde Burutzek tokian tokiko Lurralde Burutzara bidaliko dutena, alegia.

Azkenik, plan hori garatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeetan betetzeko argibideak eman ditzan ahalmenak ematen zaizkio Hezkuntzako Ikuskari Nagusiari.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko urriaren 7an

Hezkuntza Sailburuordea

Izpta. Abel Ariznabarreta Zubero